

SARE

AUSTECPA

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2019 URR 28	
SARRERA	IRTEERA	
2963		

Mozio honen sinatzaileok giza arauekin eta gizakion askatasun eta eta eskubideekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.


Giza arau eta eskubide horiek diren bezalaxe onartu behar dira, edozein delarik ere aukera, egoera edo interes politikoa. Espetxeratuta dauden pertsonen ere eskubideak zor zaizkie, eta horiek aitortu eta betearazi behar dira, bidezkoa delako. Hortaz, 70 urte edo gehiago dituzten pertsonak espetxean atxikitzea, are gehiago kontuan hartuta zigor luzeek, osasun artapen eskasak eta sakabanaketa politikak egoera hori larritu baino ez dutela egiten, eragindakoen oinarriko eskubideen urraketa larria ez ezik gehitutako zigor krudela ere bada haien senide eta lagunentzat.

Gure herriko semea den Joseba Arregi Erostarbek 73 urte ditu. 70 urte baino gehiago dituzten pertsonen, adinagatik bere familia eta lagunak inguraturik egon behar du, adinak ekar ditzakeen gaixotasun, ezinei, ahalik eta ondoen aurre egiteko.

Giza eskubideen eta gizatasun printzipioaren defentsan murgildutako herritarrak garen aldetik, eta Joseba pairatzen ari den egoera ikusita, Oñatiko Udaltzara jotzen dugu, honako hausnarketa hauek plazaratzearen:

- Espainiako kode Penalak bere 92.artikuloan dio 70 urte betetzen dituzten presoek baldintzapeko askatasuna lor dezaketela. Euskal presoek, baina, neurritz kanpoko exijentziak gehitzen zaizkie eskubide hau lortzeko: agintariekin kolaboratu (salaketa), beren helburu politikoei uko egitea....
- Honez gain, Entzutegi Nazionalaren menpe dagoen Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentrala da erabakiaz arduratzen dena. Denok dakigu zer den eta zertarako sortu zen Entzutegi hau.
- Gaur egun, euskal jendartearen gehiengo nagusiak, alderdi politikoek eta sindikatu gehienek eta gizarte eragile kontaezinek espetxe politika berri bat eskatzen dute, elkarbizitzan eta bakean aurrera egiteko.

Hausnarketa hauetatik abiatuta, sinatzaileok mozio hau aurkezten diogu Oñatiko Udaltzari, onartu dezan:



**SARE**

1. Oñatiko Udalak, gizatasun arrazoiak direla eta, gure herriko semea eta 73 urte dituen Joseba Arregi Erostarbe presoa askatzea eskatzen du.
2. Oñatiko Udalak, kaleratzea gertatu bitartean, jatorrizko hurbileko espetxe batera ekartzea eskatzen du, bere familia eta lagunengandik ahalik eta hurbilen.
3. Oñatiko Udalak akordio hau Entzutegi Nazionaleko Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralari igorriko dio, bere babes eta jurisdikziopean baitago egun Joseba.

Oñati, 2019-10-31